

EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITIRA GARBIKETA ARLOKO LANTEGIKO BURU LANPOSTU FINKOA ESTALTZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ETA HAUTAKETA PROZESURAKO KANPOKO DEIALDIA.

Indesa 2010 SLren Administrazio Kontseiluak, 2024ko abenduaren 17an, sozietateko lanpostu zerrenda aldatzea erabaki zuen, Garbiketa Arloko Lantegiko buru lanpostu bat sortuz. Lanpostu hori sortzea justifikatu zen amortizatu egin zelako Enplegu Bereziko Lantegiko langileburu lanpostua (52.012 kodea), INDESAn zerbitzuak ematen zituen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario bat erretiratzeagatik.

Plaza hutsen, eta hala badagokio, sortu berri diren plazen eginkizunak, erantzukizunak eta sarbide sistema Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 29an egindako bilkuran, onetsi zuen lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian jasotzen dira. Langile publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak kasuan kasuko hautaketa prozesua irekitzea ezartzen dute. Haren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publikitate printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

2024ko apirilaren 4an, Egoitzak eta Beste Zentro Batzuk Garbitzeko Arloko Lantegiko buru lanpostu finko baten barne sustapeneko hautaketa prozesuaren oinarriak onetsi eta horren inguruko ebazpena eman zen, eta esleitu gabe utzi behar izan zen, hautagairik ez zegoelako. Urtebete igaro denez, eraginkortasuna eta efizientzia direla eta, kanpoko prozesu baten bidez beteko da lanpostua.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Onespena ematea Garbiketa Arloko Lantegiko buru lanpostu finkoa kanpoko deialdi baten bidez estaltzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarri orokorrei eta espezifikoei, bai eta eranskinei ere.

BIGARRENA.- Onespena ematea kanpoko deialdiaren bidez egindako hautaketa prozesuaren deialdiari, aipatutako plazara sartzeko. Bestalde, eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.

LAUGARRENA.- Hautaketa prozesuaren hautaketa organo gisa honako hauek izendatzea:

- lehendakari gisa, Giza Baliabideen Zuzendaritzako titularra edo haren ordezkoa.
- kide gisa, Arloen Zuzendaritzako, Finantza Zuzendaritzako eta Eragiketa Zuzendaritzako titularrak.

- idazkari gisa, Lege Zuzendaritzako teknikari bat.
- Batzordeko ordezkari bat bertaratu ahal izango da, hitzarekin baina botorik gabe.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea batzordeari.

Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 30a

Ander Eguidazu Aldalur
INDESA 2010 SL enpresako zuzendari-kudeatzailea